

Diskoak

IKER BARANDIARAN



*Arrasate Euskaldun
Dezagun 25 urte.*
Askoren artean.
Autoekoizpena.
Iraupena: 30'24".
4 euro.

Euskarazko osagai garrantzitsua rock entsaladan

ARRASATEKO EUSKARA ELKARTEAK gazteen artean urteurrenaren berri eman eta bide batez musikagintzan euskarari beste bultzada bat emateko, disko-bilduma egin du. Arrasaten dozenaka talde dauden arren, hemen bederatzi aurki ditzakegu; eta oso bitxia da hain estilo desberdineko proposamenak izatea. Gainera, badira inoiz edo oso gutxitan euskaraz egiten dutenak ere. Gose eta Jokin Labayenek elkarrekin idatzitako

kantuak aldarrikatzen du euskara ez dela museoetan gordetzekoa, pop eta doinu elektronikoekin. Horrez gain, bada punk-oi! estiloa lantzen duenik (The Convicts), Laboaren aztarna daukan folk experimentalak (Ain_1), rock-and-roll garageroa (Foxy Boxxi eta The 5 Twisters), 70eko hamarkada aldarrikatzen duenik (Muskaria), folk-rocka (Haitzama), hard-rocka (Ozen) edota surf-rock instrumentala (Los Galerna) ere.

Josu Herrarte - Arrasate Euskaldun Dezagun

«Saiatuko gara, adibidez, hip-hopak egiten dutenek euskaraz egin dezaten»

Noiz eta zelan bururatu zitzaizuen Arrasateko musika taldeen disko bilduma egitea?

AEDren 25. urteurrenako ospakizunak prestatzeko hainbat lantalde burubelarri jarri ziren, eta horietako baten Olaia Murua teknikariari disko bat egitea bururatu zitzaion. Helburua izan da gazteen artean ere urteurrena barneratzea eta musika zaleen artean ere euskarari bultzada ematea. Zer izan da zailena?

Lan hau egiteak jende asko inplikatu du. Batzar asko egin behar izan dira; eta taldeek kantu berriak konposatu dituzte bildumarako. Denboran luzatu egin da eta zoritxarrez talde batzuk kanpoan gelditu dira datak parekaezinak zirelako edo beste konpromiso batzuk zituztelako. Arrasaten dagoen talde mordoaren lagin bat besterik ez da, baina gustura gaude emaitzarekin. Eta azpimarratu behar da taldeek hasieratik izan duten jarrera ona.

Diskoa zabaltzen duen kantua, AEDren urteurrenkoa, Gosek egin du. Gosek moduan AEDk euskararen alor guztiei eragiten die?

Bai, AEDk euskararen alde lan egiten du. Helburua da euskara hedatzea arlo guztietara eta euskal kultura sustatzea. Adibidez, bertsolaritzaren alde egiten dugu, baina horregatik ez dugu nahi mundu guztia bertsotan jarri; horren ordez, saiatuko gara hip-hopak egiten dutenak hori euskaraz egin dezaten.

Bitxia da beste hizkuntza batzuetan abesten entzuten ditugun taldeak oraingoan euskaraz aditza...

Bai, hala esan genien, eta ohitura hori ez zutenek erronka moduan hartu zuten, ilusioz eta normaltasunez. Azkenean, emaitzarekin gustura gelditzeko moduan daudelakoan gaude. Euskararen aldeko beste pauso txiki bat dela uste dugu.

Zein zabalkunde izango du lan honek?

Mila kopia atera ditugu. Hasiera baten Arrasateko tabernetan banatu dugu, entzun dadin; eta AEDren jaialdian salgai jarri genuen diskoa. Uda ostean hasiko gara diskoa gehiago zabaltzen. ■

